# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia — Iruña, 2026ko ekainaren 18a — 67. ZK.

**A U R K I B I D E A**

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-26/MOC-00020. Erabakia, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen baita izapidetzera onar dezan CERMI-Mujeres fundazioak taxututako honako lege-testu hau: “Desgaitasuna dela-eta judizialki ezgaitutako esterilizazio behartu edo baimendu gabeko biktimen errekonozimenduari, erreparazioari eta kalte-ordainari buruzko lege-proposamen/proiektuaren testua". Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

—11-26/MOC-00093. Erabakia, zeinaren bidez erakunde honek bere konpromisoa berresten baitu haurdunaldia norbere borondatez eteteko eskubidearen defentsarekin eta hura baliatzeko bermearekin. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

—11-26/MOC-00101. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren autogobernuarekiko duen konpromisoa berresten baitu, bere eskubide historikoen eta berezitasun instituzionalaren adierazpena izateaz gain, funtsezko tresna baita Foru Komunitatearen aurrerabide ekonomiko, sozial eta demokratikorako. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).

—11-26/MOC-00043. Mozioa, zeinaren bidez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita desazkunde-politikei buruzko foru-estrategia garatu dezan 12 hilabeteko epean. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).

—11-26/MOC-00076. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Bardeako tiro-poligonoa Defentsarako lehentasunezko intereseko eremu deklaratu zuen dekretua indargabetu dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).

—11-26/MOC-00095. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Parlamentua premiatzen baitira berehala indargabetu dezaten 23/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako Errepideen Erabilera Kanonari buruzkoa. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).

—11-26/MOC-00100. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira Pedro Sánchezen gobernua, alderdia eta ingurune pertsonala ukitzen duten ustelkeria-eskandalu larri eta jarraituak gaitzets ditzaten, gure nazioa aurrekaririk gabeko narriatze-espiral batean murgilarazten ari baitira. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).

—11-26/MOC-00103. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu zuzenbide estatua eta epaile, fiskal eta segurtasun indar eta kidegoen lana babesten dituela eta arbuiatzen baitu erakunde judizialak eta polizialak beldurrarazteko, horiei xantaia egiteko edo sinesgarritasuna kentzeko ahalegin oro. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).

G SAILA:
**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**
—11-26/PEOP-00001. Deialdia, xede duena oposizio bidez eta txanda murriztuan betetzea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko liburutegi, dokumentazio eta artxiboko erdi-mailako teknikari postu bat, funtzionario-araubidekoa eta B mailakoa (7. or.).
—11-24/SGRP-00004. Talde parlamentarioen 2025eko ekitaldiko urteko kontuak (19. or.).

**E saila:**
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## 11-26/MOC-00020. Erabakia, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen baita izapidetzera onar dezan CERMI-Mujeres fundazioak taxututako honako lege-testu hau: “Desgaitasuna dela-eta judizialki ezgaitutako esterilizazio behartu edo baimendu gabeko biktimen errekonozimenduari, erreparazioari eta kalte-ordainari buruzko lege-proposamen/proiektuaren testua"

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko ekainaren 11n onetsitako erabakia, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen baita izapidetzera onar dezan CERMI-Mujeres fundazioak taxututako honako lege-testu hau: “Desgaitasuna dela-eta judizialki ezgaitutako esterilizazio behartu edo baimendu gabeko biktimen errekonozimenduari, erreparazioari eta kalte-ordainari buruzko lege-proposamen/proiektuaren testua". Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresua premiatzen du izapidetzera onar dezan CERMI-Mujeres fundazioak taxututako honako lege-testu hau: “Desgaitasuna dela-eta judizialki ezgaitutako esterilizazio behartu edo baimendu gabeko biktimen errekonozimenduari, erreparazioari eta kalte-ordainari buruzko lege-proposamen/proiektuaren testua".

Iruñean, 2026ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## 11-26/MOC-00093. Erabakia, zeinaren bidez erakunde honek bere konpromisoa berresten baitu haurdunaldia norbere borondatez eteteko eskubidearen defentsarekin eta hura baliatzeko bermearekin

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko ekainaren 11n onetsitako erabakia, zeinaren bidez erakunde honek bere konpromisoa berresten baitu haurdunaldia norbere borondatez eteteko eskubidearen defentsarekin eta hura baliatzeko bermearekin. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bere konpromisoa berresten du haurdunaldia norbere borondatez eteteko eskubidearen defentsarekin eta hura baliatzeko bermearekin.

2. Arbuiatu egiten du haurdunaldia norbere borondatez etetea erabakitzen duten emakumeak estigmatizatzeko, presionatzeko edo haien eskubideak urratzeko modu oro, bai eta eskubide horretarako sarbidea mugatzeko edo zailtzeko edozein saiakera ere.

3. Nafarroako Gobernua premiatzen du lanean jarrai dezan, bere eskumenen esparruan, osasun-

sistema publikoaren barruan haurdunaldia norbere borondatez eteteko aukera egiazkoa, ekitatiboa eta kalitatezkoa izanen dela bermatzeko, lurraldeen arteko desberdintasunak saihestuz eta emakume guztiek eskubide hori berdintasun-baldintzetan baliatu ahal izanen dutela ziurtatuz.

4. Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri egokiak har ditzan edozein motatako estrategia edo hertsapenen bidez emakumeek beren haurdunaldia eteteko edo ez eteteko egiten duten aukera askean eragiten duen edo eragin nahi duen neurri edo jarduera oro eragozteko.

5. Nafarroako Gobernua premiatzen du bultza dezan haurdunaldiaren borondatezko eteteetan esku hartzen duten osasun-langileen prestakuntza espezializatua eta jarraitua.

6. Nafarroako Gobernua premiatzen du indartu dezan hezkuntza afektibo-sexualaren ezarpen eraginkorra hezkuntza-sisteman, etapa guztietan, hezkidetza-dekretuaren eta Hezkuntza Departamentuak gauzatutako programen ildotik, haren izaera integrala bermatuz, ebidentzia zientifikoan oinarrituta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegiarekin eta indarkerien eta nahi gabeko haurdunaldien prebentziora bideratuta.

7. Nafarroako Gobernua premiatzen du hezkuntza afektibo-sexualeko programak gara ditzan eremu ez-formaletan ere, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak toki-entitateentzat eta elkarteentzat egiten dituen dirulaguntzen deialdiak babestuz, arreta berezia jarriz gazteengan eta egoera ahulenean dauden kolektiboengan, eta egiazko informazioa eta baliabide egokiak eskuratzen dituztela ziurtatuz.

8. Nafarroako Gobernua premiatzen du elkarlanean aritu dadin sexu- eta ugalketa-eskubideen defentsan lan egiten duten elkarte-sarearekin, erakunde feministekin eta gizarte-entitateekin, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baten eraikuntzan duten funtsezko eginkizuna aitortuz.

9. Nafarroako Gobernua premiatzen du sentsibilizazio-kanpainak susta ditzan, gizartea informatuagoa, errespetutsuagoa eta berdintasunarekin konprometituagoa izan dadin laguntzeko, emakumeen eskubideak eztabaida publikoaren erdigunean jarriz”.

Iruñean, 2026ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## 11-26/MOC-00101. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren autogobernuarekiko duen konpromisoa berresten baitu, bere eskubide historikoen eta berezitasun instituzionalaren adierazpena izateaz gain, funtsezko tresna baita Foru Komunitatearen aurrerabide ekonomiko, sozial eta demokratikorako

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko ekainaren 11n onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren autogobernuarekiko duen konpromisoa berresten baitu, bere eskubide historikoen eta berezitasun instituzionalaren adierazpena izateaz gain, funtsezko tresna baita Foru Komunitatearen aurrerabide ekonomiko, sozial eta demokratikorako. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Nafarroaren autogobernuarekiko duen konpromisoa berresten du, erkidegoaren eskubide historikoen eta berezitasun instituzionalaren adierazpena izateaz gain funtsezko tresna ere badenez gero Foru Komunitatearen aurrerabide ekonomiko, sozial eta demokratikorako.

2. Lehentasunezkotzat jotzen du Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aurreikusitako eskumen-esparrua garatzen jarraitzea, oraindik egiteke dauden transferentzia-prozesuak amaituz, bai aribidean daudenak, bai hasigabeak.

3. Nafarroako Gobernua premiatzen du eskualdatu gabe dauden eskumenen negoziazioa eta burutzapena bultzatzen jarraitzera.

4. Estatuko Gobernua premiatzen du leialtasun instituzionalez jardutera eta Nafarroaren autogober-

nuaren garapen eraginkorra burutzeko beharrezkoak diren akordioak erraztera.

5. Nafarroako Gobernuari eskatzen dio txosten eguneratu bat egiteko eta Parlamentuan aurkezteko sei hilabeteko epean. Txosten horrek honako hauek jasoko ditu:

– Eskualdatu gabe dauden eskumenen egoera.

– Estatuko Administrazio Orokorrarekin abian diren negoziazioak.

– Hautemandako oztopo nagusiak.

– Oraindik burutu gabeko eskualdatzeetan aurrera egiteko egutegi-proposamena”.

Iruñean, 2026ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## 11-26/MOC-00043. Mozioa, zeinaren bidez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita desazkunde-politikei buruzko foru-estrategia garatu dezan 12 hilabeteko epean

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 11n egindako bilkuran, ezetsi egin du Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita desazkunde-politikei buruzko foru-estrategia garatu dezan 12 hilabeteko epean. Mozioa 2026ko martxoaren 6ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## 11-26/MOC-00076. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Bardeako tiro-poligonoa Defentsarako lehentasunezko intereseko eremu deklaratu zuen dekretua indargabetu dezan

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 11n egindako bilkuran, ezetsi egin du Irati Jiménez Aragón andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Bardeako tiro-poligonoa Defentsarako lehentasunezko intereseko eremu deklaratu zuen dekretua indargabetu dezan. Mozioa 2026ko maiatzaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 11-26/MOC-00095. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Parlamentua premiatzen baitira berehala indargabetu dezaten 23/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako Errepideen Erabilera Kanonari buruzkoa

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 11n egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Parlamentua premiatzen baitira berehala indargabetu dezaten 23/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako Errepideen Erabilera Kanonari buruzkoa. Mozioa 2026ko ekainaren 5eko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## 11-26/MOC-00100. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira Pedro Sánchezen gobernua, alderdia eta ingurune pertsonala ukitzen duten ustelkeria-eskandalu larri eta jarraituak gaitzets ditzaten, gure nazioa aurrekaririk gabeko narriatze-espiral batean murgilarazten ari baitira

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 11n egindako bilkuran, ezetsi egin du Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira Pedro Sánchezen gobernua, alderdia eta ingurune pertsonala ukitzen duten ustelkeria-eskandalu larri eta jarraituak gaitzets ditzaten, gure nazioa aurrekaririk gabeko narriatze-espiral batean murgilarazten ari baitira. Mozioa 2026ko ekainaren 9ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## 11-26/MOC-00103. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu zuzenbide estatua eta epaile, fiskal eta segurtasun indar eta kidegoen lana babesten dituela eta arbuiatzen baitu erakunde judizialak eta polizialak beldurrarazteko, horiei xantaia egiteko edo sinesgarritasuna kentzeko ahalegin oro

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 11n egindako bilkuran, ezetsi egin du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu zuzenbide estatua eta epaile, fiskal eta segurtasun indar eta kidegoen lana babesten dituela eta arbuiatzen baitu erakunde judizialak eta polizialak beldurrarazteko, horiei xantaia egiteko edo sinesgarritasuna kentzeko ahalegin oro. Mozioa 2026ko ekainaren 9ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

## 11-26/PEOP-00001. Deialdia, xede duena oposizio bidez eta txanda murriztuan betetzea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko liburutegi, dokumentazio eta artxiboko erdi-mailako teknikari postu bat, funtzionario-araubidekoa eta B mailakoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 1ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak deialdi-proposamen bat aurkeztu du, xede duena oposizio bidez eta txanda murriztuan betetzea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko liburutegi, dokumentazio eta artxiboko erdi-mailako teknikari postu bat, funtzionario-araubidekoa eta B mailakoa. Proposamen hori egiten da Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko buruak eskatuta, Zerbitzuko lanpostu jabegabea behin betikoz betetzeko. Espedientea (11-26/PEOP-00001) Zerbitzu Juridikoek eta Kontu-hartzailetzak egindako txostenarekin osatu da.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko liburutegi, dokumentazio eta artxiboko erdi-mailako teknikari postu bat, funtzionario-araubidekoa eta B mailakoa, txanda murriztuan eta oposizio bidez betetzeko deialdiaren oinarriak onestea eta espedientea abiatzeko agindua ematea.

**2.** Agintzea deialdia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### Deialdia, xede duena oposizio bidez eta txanda murriztuan betetzea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko liburutegi, dokumentazio eta artxiboko erdi-mailako teknikari postu bat, funtzionario-araubidekoa eta B mailakoa

Deialdi hau honako oinarri hauen bitartez arautzen da:

**1. oinarria.** Xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da barne-igoera murriztuan betetzea, oposizio bidez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko liburutegi, dokumentazio eta artxiboko erdi-mailako teknikari postu bat, funtzionario-araubidekoa eta B mailakoa.

1.2. Oposizioa 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan eta horrek gerora izandako aldaketetan xedatuari jarraikiz eginen da, osagarri modura heldurik Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuari eta hori garatzeko eta betearazteko Sarrera-erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuari.

1.3. Deialdi hau dela medio izendatua suertatzen den izangaiak Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat eta, zehazki, teknikarien kidegokoentzat (diplomadun teknikarien eskala) ezartzen diren egินkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak edukiko ditu. Eginkizun izanen ditu orokortasunez ezartzen direnak 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 8.2. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolamenduari buruz-

ko Erregelamenduaren 24. artikuluan; bai eta, zehazki, Nafarroako Parlamentuko Artxiboari Dokumentu Elektronikoak Nafarroako Parlamentuan Kudeatzeko Politikan, Administrazio Elektronikoaren funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan eta Artxiboari eta Dokumentuen Kudeaketari buruzko Erregelamenduan esleitzen zaizkionak ere.

Lanpostua Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuari atxikita dago.

1.4. Izendapenak Nafarroako Parlamentuaren nominako eta plantillako funtzionarioaren izaera emanen dio izendatuari, indarreko xedapenetan adierazitako eskubide eta betebehar guztiekin.

1.5. Lanpostua B mailakoa da, eta lansari gisa ditu maila horri dagozkionak gehi Nafarroako Parlamentuko plantilla organiko indardunean zehazten diren osagarriak.

1.6. Izendatzen den funtzionarioa Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartua eta afiliatua izanen da, eta araubide horrek ezartzen duen babesaren abaroan egonen da, salbu eta jadanik afiliatuta baldin badago Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuak eta horren osagarri diren xedapenek aipatzen duten eskubide pasiboen eta osasungintza- eta gizarte-laguntzaren araubidera, ezen kasu horretan zilegi izanen du aukera egitea araubide horretan segitzearen alde ala Gizarte Segurantzan afiliatzearen alde.

1.7. Lanaldia Nafarroako Parlamentuko langileentzat orokortasunez ezarrita dauden ordutegi eta txandetan beteko da.

**2. oinarria**. Izangaien betekizunak.

2.1. Izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Nafarroako Parlamentuko funtzionario-izaerako langile izatea eta borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea igoerarako abiapuntu den postuan, salbu eta borondatezko eszedentzian dagoen pertsona Nafarroako Parlamentuan aldi baterako beste lanpostu batean zerbitzu ematen ari denean.

b) Deialdian sartutako lanpostu jabegabeen maila berean edo baxuagoa den batean egotea eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 12. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea, barne delarik administrazio publikoetan bost urteko antzinatasun aitortua izatearen froga ematearena.

c) Diplomadun, arkitekto nahiz ingeniari teknikoaren unibertsitate-titulu ofizialaren edo horien baliokide edo goragoko gisa deklaratuak izan diren titulu ofizialetakoren baten jabe izatea, edo hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria edukitzea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Atzerrian lortutako tituluen kasuan, beharrezkoa izanen da aipatutako data horretan edukitzea horien homologazioa frogatzen duen dokumentazio ofiziala edo, bestela, kasuko baliokidetasun-ziurtagiri ofiziala. Izangaiei betekizun hori ez zaie aplikatuko, baldin eta Europar Batasuneko zuzenbideko xedapenen babesean lortu badute beren lanbide-kualifikazioaren aitorpen ofiziala, lanbide arautuen esparruan.

d) Kasuko eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa edukitzea.

e) Kasuko eginkizun publikoetan aritzeko ezgaituta edo etenarazita ez egotea, eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ez izatea, ez eta diziplinako kaleratze bidez langabetua ere.

2.2. Aurreko baldintzak bete beharko dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean, eta postuaren jabetza hartzen den arte.

Betebehar horretatik salbuesten da borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotearen baldintza, zeina bete beharko baita eskabide-aurkezpeneko epea amaitzen den unean, bai eta deialdiko 8.3 atalak aipaturiko agiri-aurkezpen epea amaitzen den unetik plazaren jabetza hartzen den unera arte ere.

2.3. Izangaiek deialdi honen oinarrietan zehazten den unean frogatu beharko dute aurreko betekizun horiek betetzen dituztela.

**3. oinarria**. Parte hartzeko eskaera, dokumentazioa eta azterketa-eskubideak.

3.1. Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek telematikoki aurkeztu beharko dute beren eskaera, Internetez, Nafarroako Parlamentuaren https://sede.parlamentodenavarra.es egoitza elektronikoan eskuragarri egonen den eskabide bat erabiliz ("Administrazio-izapideak/Langileria-deialdietarako eskabidea" atalean).

3.2. Eskabideari nahitaez erantsi beharko zaio parte hartzeko eskaera, I. eranskineko ereduaren araberakoa, eta interesdunentzat eskuragarri egonen dena Nafarroako Parlamentuaren www.parlamentodenavarra.es/eu webguneko "Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2026ko ekitaldia" atalean.

3.3. Parte hartzeko eskaeran, izangaiek adierazi beharko dute ezarrita dauden baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, horietarako erreferentzia gisa harturik eskaera-aurkezpenerako zehaztutako epearen amaiera-eguna.

3.4. Parte-hartze eskaerarekin batera, izangaiek Nortasun Agiri Nazionalaren, pasaportearen edo beste identifikazio-agiri ofizial baten kopia aurkeztu beharko dute.

3.5. Halaber, deialdi honetan parte hartzeko betekizun gisa exijitzen den titulazio ofizialaren kopia aurkeztu beharko dute. Atzerrian lortutako tituluei dagokienez, horien homologazioaren frogagiri ofizialaren edo, kasua bada, baliokidetasunziurtagiri ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.

3.6. Espainiako nazionalitatea ez duten pertsonek beren identitatea eta nazionalitatea frogatzen dituzten agirien kopiak aurkeztu beharko dituzte, bai eta, kasua bada, 2.1.a) apartatuan ezarritako nazionalitate- eta ahaidetasun-baldintzei buruzkoena ere. Halaber, zinpeko edo hitzematezko adierazpena aurkeztu beharko dute, zeinean esaten baita beren jatorrizko herrialdean funtzio publikorako sarbidea eragozten duen diziplina-zehapenik edo zigor penalik ez dutela jaso.

3.7. Desgaitasun aitortua duten izangaiek zilegi izanen dute balizko denbora- eta baliabide-egokitzapenak eskatzea horiek beharrezkoak zaizkien ariketa egiteko. Kasu horretan, parte hartzeko eskabidean horien berri eman beharko dute, aparteko orri batean adierazi beharko dute zer desgaitasun duten eta zein diren eskatzen dituzten egokitzapenak, eta legezko desgaitu-izaeraren frogagiria erantsi beharko dute, zeina organo eskudunak jaulkitako dokumentuaren kopia bat izanen baita.

3.8. Azterketa egiteko eta espedientea formalizatzeko eskubideak 41,60 eurokoak dira, eta Nafarroako Parlamentuaren ES37 0182 1290 310201511138 (BBVA) banku-kontura transferentzia eginez ordainduko dira, azalpenean "Liburutegi, dokumentazio eta artxiboko erdi-mailako teknikari postu baterako azterketa-eskubideak" adierazita eta bidaltzailea izen-abizenekin identifikatuta. Transferentzia horren frogagiria parte-hartze eskabideari atxiki beharko zaio.

Azterketarako eta espediente-formalizaziorako eskubideak ordaindu ezean, izangaia deialditik at geldituko da. Azterketa-eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskabidea epean eta moduan aurkeztu beharra.

Azterketa-eskubideak ordaintzetik salbuetsita egonen dira 100eko 33 edo gehiagoko desgaitasun aitortua duten pertsonak. Beren legezko desgaitu-izaeraren frogagiria atxiki beharko dute.

**4. oinarria**. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hogei egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunetik zenbatzen hasita. Eskabideak aurkezteko ezarritako epea luzaezina izanen da.

**5. oinarria**. Izangai-onarpena. Behin-behineko zerrenda eta behin betiko zerrenda.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak izangai onartuen eta izangai baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta aginduko du Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila. Zerrenda horretan, pertsona onartuen eta pertsona baztertuen izen-deiturak agertuko dira. Bazterturik ez badago, zilegi izanen da zuzenean onestea behin betiko zerrenda. Orobat, https://parlamentodenavarra.es/eu webgunean ere argitaratuko da, “Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2026ko ekitaldia” atalean.

5.2. Behin-behineko zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunetik aurrerako hamar egun balioduneko epean, interesdunek zilegi izanen dute zerrenda horren aurka egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztea eta, kasua bada, egin dituzten balizko akatsak zuzentzea.

5.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganda dagoelarik eta horiek ebatzita daudelarik, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak izangai onartuen eta izangai baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, zeina honako hauetan argitaratuko baita: Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta https://parlamentodenavarra.es/eu webguneko “Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2026ko ekitaldia” atalean.

5.4. Azterketarako eta espediente-formalizaziorako eskubideak ez dira itzuliak izanen izangaia baztertua izanez gero, ez eta ordainketa egin bai baina edozein arrazoi dela medio izangaiak inskripzioa burutu ez duenean ere.

5.5. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi zerrenda horretan ageri diren pertsonei aitortu egiten zaienik deialdiko prozeduran eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela. Hautatze-prozedura gainditu gero aurkeztu beharreko dokumentaziotik ondorioztatzen baldin bada interesdunak ez duela betekizunen bat betetzen, pertsona horrek galdu eginen du prozedura honetan parte hartzetik hel lekiokeen eskubide oro, ezertan galarazi gabe fal-

tsukeriazko jokabideagatik erator lekizkiokeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

**6. oinarria**. Epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduna.

6.1. Honako kide hauek osatuko dute epaimahaia:

Lehendakaria: Yolanda Ibáñez Pérez andrea, Nafarroako Parlamentuko lehen idazkaria.

Ordezkoa: Maite Esporrín Las Heras andrea, Nafarroako Parlamentuko lehen lehendakariordea.

Epaimahaikidea: Mikel Iriarte Cilveti jauna, Nafarroako Parlamentuko Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Arantza Andueza Gorosabel andrea, Eusko Legebiltzarreko dokumentalista.

Epaimahaikidea: Carmen Echeverría Arambillet andrea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko liburutegiko zuzendaria.

Ordezkoa: Ana Amigot Zardoya andrea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko liburutegiko zuzendariordea.

Epaimahaikidea: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak hautatuko du.

Ordezkoa: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak hautatuko du.

Idazkaria: Miguel Ángel Núñez Iriarte jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Ordezkoa: Silvia Doménech Alegre andrea, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusia.

6.2. Baldin eta, legez ezarritako abstentzio- eta errefus-arrazoiak aplikatuz, epaimahaiaren osaeran inolako aldaketarik eginen balitz, aldaketa hori izangai onartuen eta izangai baztertuen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko litzateke.

6.3. Epaimahaia hautaproben hasiera baino lehenago eratu beharko da. Hautakizun dauden epaimahaikideen hautaketa eginen da izangai onartuen eta izangai baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzearekin batera.

6.4. Epaimahaia ezin izanen da eratu edo jardun baldin eta gutxienez ere haren kideen gehiengo osoa ez bada bertaratu. Halaber, epaimahaiaren eraketa eta jarduna baliodunak izateko, beharrezkoa izanen da epaimahaiburua eta epaimahaiaren idazkaria bertaratuta egon daitezela; edo, kasua bada, haien ordezkoak.

6.5. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeari eta aplikatzeari buruz sortzen ahal diren ebazkizun guztiak.

6.6. Epaimahaikideak behartuta egonen dira esku hartzetik abstenitzera, eta organo dei-egileari horren berri eman beharko diote, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean aipatzen diren abstentzio-kausetakoren bat gertatu egiten bada. Halaber, izangaiek zilegi izanen dute aipatu inguruabarretan dauden epaimahaikideak errekusatzea.

6.7. Epaimahaiak aholkulari espezialistak bereganatzen ahal ditu proba guztietarako nahiz probaren baterako. Aholkulari horiek lankidetzan arituko dira epaimahaiarekin, eta beren espezialitate teknikoetan jardutera mugatuko dira.

**7. oinarria**. Oposizioaldia.

7.1. Oposizioa 2026ko abendutik aurrera eginen da, Nafarroako Parlamentuaren webgunean gutxienez ere hamabost egun natural lehenago iragarriko diren tokian, egunean eta orduan.

Oposizioak hiru proba izanen ditu. Horiek egun desberdinetan eginen dira, eta behar denean iragarriko dira. Probetako puntuazioak bi hamarrenera biribilduta adieraziko dira. Oposizioaldiko probetan gehienez ere 100,00 puntu lortzen ahalko dira. Hiru probak baztergarriak izanen dira. Probak gainditzeko, haietariko bakoitzean gehieneko puntuazio aurreikusiaren erdia lortu behar da gutxienez ere.

a) Lehenengo proba. Proba teorikoa da. Proba honetan idatziz erantzun beharko zaio deialdi honetako gaitegi osoari buruzko test-moduko galderaz osaturiko galdetegi bati, non galdera bakoitzak zenbait erantzun eskainiko baititu aukeran, zeinetatik bakarra izanen baita zuzena.

Epaimahaiak zehaztuko ditu probaren gehieneko iraupena eta okerreko erantzunen balizko penalizazioak, eta proba honetarako deialdian iragarriko dira. Proba egiten den bitartean ezin izanen da inolako testurik edo dokumentaziorik kontsultatu, ez eta hiztegirik, kalkulagailurik, gailu elektronikorik, erloju adimendunik edo bestelako materialik erabili ere, salbu eta tinta urdinezko nahiz beltzezko boligrafoa.

Gehienez ere 20,00 puntu lortzen ahalko dira lehenengo proba honetan, eta bazterturik geratuko dira gutxienez 10,00 puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

b) Bigarren proba. Proba teorikoa da. Hiru ariketaz osatuta egonen da.

Lehenengo ariketan eskatuko da idatziz azaltzea liburutegiari buruzko gai-zerrendan daudenen artetik ausaz zehaztuko den gai bat.

Bigarren ariketan eskatuko da idatziz azaltzea dokumentazioari buruzko gai-zerrendan daudenen artetik ausaz zehaztuko den gai bat.

Hirugarren ariketan eskatuko da idatziz azaltzea artxiboari buruzko gai-zerrendan daudenen artetik ausaz zehaztuko den gai bat.

Proba hau egiteko gehienezko denbora lau ordukoa izanen da.

Epaimahaiak honako hauek baloratuko ditu: ezagutzaren luze-zabala eta haren maila teknikoa, erabilitako bibliografia eta oinarritze teorikorako beste iturri batzuk, ideien argitasun eta ordena eta idatzizko adierazpenaren kalitatea.

Bigarren probaren balorazioak gehienez ere 40,00 puntu eskuratu ahalko ditu, honela banatuak: lehen ariketak gehienez ere 15,00 puntu jasoko ditu; bigarrenak, 15,00 puntu; hirugarrenak, 10,00 puntu. Bazterturik suertatuko dira proba honen osotasunean gutxienez ere 20,00 puntu lortzen ez duten pertsonak.

c) Hirugarren proba. Proba teoriko-praktikoa da.

Bertan, gai-zerrendan jasota dauden arloei buruzko hiru ariketa (kasu teoriko-praktikoak) ebatzi beharko dira, epaimahaiak proposatuak, zeinak lanpostuaren berezko eginkizunei baitagozkie. Epaimahaiak egoki deritzen jarraibideak emanen ditu ariketa horiek egiteari buruz.

Probaren gehieneko iraupena epaimahaiak zehaztuko du, eta haren deialdian jakinaraziko da.

Honako hauek izanen dira ariketak:

<u>Lehen ariketa</u>: katalogazioa. Zeregin praktikoak ipiniko dira, bai monografiak bai aldizkako argitalpenak katalogatzekoak.

Proba hau egiten den bitartean zilegi izanen da honako argitalpen hauek erabiltzea, izangaiek berek ekarriak: indarreko Katalogazio Erregelak (1995eko edo geroagoko argitalpena), ISBDren argitalpen bategina (2011), MARC21 Formatua (argitalpen osoa eta eguneratua), Sailkapen Hamartar Unibertsala (2004ko edo geroagoko argitalpena), liburutegi publikoetarako Gai-sarreren Zerrenda indarduna (1986) eta monografia modernoetarako RDAren Aplikazio Profila, Espainiako Liburutegi Nazionalarena (02 bertsioa edo geroagokoa).

<u>Bigarren ariketa</u>: espediente bati buruzko artxibozaintza. Proba hau egiten den bitartean, ez da zilegi inolako testu edo materialik kontsultatzea.

<u>Hirugarren ariketa</u>: dokumentazio-dosier bat egitea. Dokumentazio-dosier bat prestatu beharko da epaimahaiak proposaturiko gai bati buruz. Epaimahaiak Interneterako konexiodun ordenagailu bana jarriko du izangaien eskueran, haren bidez egin dezaten hirugarren ariketa.

Epaimahaiak beharrezkotzat jotzen duen laguntza teknikoa eskatzen ahalko du proba honetarako. Epaimahaiak honako hauek baloratuko ditu: ebatzi beharreko kasuetan planteatzen diren egoera praktikoei ezagutzak aplikatzeko gaitasuna, ezagutza horien luze-zabala eta maila teknikoa, zorroztasun analitikoa, erlazionatze-gaitasuna, jarritako kasu praktikoak ebazteko proposamen arrazoitu bat egiteko sistematika eta ideia-argitasun eta -ordena, bai eta ideia horiek aurkezteko eta azaltzeko modua ere.

Hirugarren probaren balorazioak gehienez ere 40,00 puntu eman ahalko ditu, honela banatuak: lehen ariketak gehienez ere 20,00 puntu jasoko ditu; bigarrenak, 10,00 puntu; hirugarrenak, 10,00 puntu. Bazterturik geratuko dira proba honen guztizkoan gutxienez ere 20,00 puntu lortzen ez duten pertsonak.

7.2. Hiru probak egiten diren bitartean, ezin izanen da kontsultatu jadanik aipaturikoaz bestelako testurik edo materialik. Ezin da erabili telefono mugikorrik, erloju adimendunik ez eta beste edonolako gailu elektronikorik ere. Horiek itzalita eta gordeta egon beharko dira une oro.

7.3. Bigarren eta hirugarren probetan, plika itxien sistemaren bidez eginen da zuzenketa. Plikak jendaurreko ekitaldian irekiko dira, eta ekitaldi hori gutxienez hogeita lau ordu lehenago iragarriko da Nafarroako Parlamentuaren webean. Hirugarren probarako, izangai bakoitzari eskueran ipiniko zaio ordenagailu bat, lanabes desberdinez hornitua.

7.4. Probetarako dei bakarra eginen da. Izangaiek aldean izan beharko dute Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea, gidabaimena edo epaimahaiaren iritziz nahikoa den beste identifikazio-agiri ofizial bat. Probetara agertzen ez diren izangaiak edo beren nortasuna frogatzen ez dutenak oposiziotik bazterturik geratuko dira.

Probetarako deia gutxienez ere 48 ordu lehenago emanen da argitara, deialdi honen 10. oinarrian ezarritako moduan. Deian zehaztuko da proba egitera deitutako izangaien zerrenda, eta zer toki, egun eta ordutan eginen den hura.

7.5. Oposizioko probak egiteko, denbora- eta baliabide-egokitzapen posibleak ezarriko dira aitorturiko desgaitasunen bat izanda halakoak propio eskatzen dituzten pertsonentzat, parte hartzeko eskabidean azaldu dutenaren araberakoak.

7.6. Proba bakoitzaren kalifikazioa amaitu denean, izangaiek lortutako puntuazioen zerrenda argitaratuko du epaimahaiak Nafarroako Parlamentuaren webean, eta bost egun balioduneko epea abiaraziko du interesdunek eskubidezkotzat jotzen dutena telematikoki alegatu ahal izan dezaten.

**8. oinarria**. Probak gainditu dituzten pertsonen zerrenda, izendapen-proposamena eta dokumentu-aurkezpena.

8.1 Hiru proben kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaiak Parlamentuaren webean argitaratuko du gainditu duten pertsonen zerrenda, izangaiek oposizioan lortu dituzten kalifikazioak jasota bertan, lorturiko guztizko puntuazioaren araberako hurrenkeran.

Oposizioaren guztizko puntuazioan gertatzen diren berdinketak hirugarren proban puntuaziorik handiena lortu duenaren alde ebatziko dira, eta berdinketak bere horretan jarraitzen badu, bigarren proban lorturiko puntuazioak hartuko dira kontuan. Hala eta guztiz ere berdinketa mantendu egiten bada, propio deituriko eta jendaurreko ekitaldian eginiko zozketa bidez ebatziko da.

8.2. Epaimahaiak Nafarroako Parlamentuko Mahaiari guztizko puntuazio handiena lortu duen izangaiaren aldeko izendapen-proposamena igorriko dio, oposizioko aktekin eta gainerako dokumentazioarekin batera. Proposamen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.3. Izangaiari izendapen-proposamena jakinarazi ostean, hark honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dizkio Nafarroako Parlamentuari 10 egun balioduneko epean, guztiak ere jatorrizkoan eta fotokopian, konpultsatuak eta bueltatuak izateko:

a) Nortasun Agiri Nazionala edo izangaiaren nazionalitate eta identitatea frogatzen dituen beste agiri baliokide bat.

b) Goragoko 2.1.c) oinarrian eskatutako titulua, edo haren jaulkipenerako eskubideak eskabide-aurkezpenerako epea bukatzen zen egunean ordainduta izatearen gordekina.

e) Txostena, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiko Laneko Arriskuen Prebentziorako Atalak egina, zeinaren bidez frogatzen baita interesdunak ez duela eritasun edo akats fisikorik, lanpostuaren berezko eginkizunetan aritzea eragozten dionik. Ofizioz aurkeztuko da, horretarako osasun-azterketa egin ondoren. Desgaitasunen bat alegatu duten izangaien kasuan, balorazio- eta orientazio-talde eskudunek ofizioz emanen dute desgaitasun hori deialdiko lanpostuarekin bateragarria izateari buruzko frogagiria.

d) Zinpeko aitorpena, eginkizun publikoetan jarduteko ezgaituta edo etenarazita ez egotearena eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia ez izatearena.

e) Zin egite edo hitzematea, Nafarroako Foru Eraentza beteko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela eta karguaren berezko eginkizunak zintzo beteko dituela dioena.

8.4. Baldin eta, behar adina justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatua izan den pertsonak ez baditu dokumentu horiek aurkezten, ezin izanen da hura izendatu, eta haren jarduketa guztiak deuseztaturik geldituko dira, ezertan galarazi gabe hari bere eskabideko faltsukeriagatik legokiokeen erantzukizuna.

8.5. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuan, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 8.1 apartatuan aipatzen den gaindituen zerrendan jarraian dagoen izangaiarekin beteko du hutsune hori, eta aurreko apartatuetan ezarritako prozedura berari jarraituko zaio harekin.

**9. oinarria**. Izendapena.

9.1. Behin 8.3 apartatuan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu direnean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak funtzionario izendatuko du proposatua izan den izangaia. Izendapena Nafarroako Parlamentuaren webean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

9.2. Izendatutako pertsonak bere lanpostuaren jabetza behin betikoz hartu beharko du Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren aitzinean, Mahaiak jaulkitako izendapen-ebazpenean horretarako ezartzen den egunean, salbu eta aski justifikaturik dauden kasuetan.

9.3. Ulertuko da ezen aipatu epean lanpostuaren jabetza hartzen ez duen izangaiak uko egiten diela oposiziotik eratorritako eskubideei. Kasu horretan, deialdi honen 8. oinarrian aipatzen den gainditzaileen zerrendan hurrengo tokian dagoen izangaiarekin beteko da plaza, eta aurreko apartatuetan azaldutako modu berean jardunen da.

**10. oinarria**. Jarduketak argitaratzea.

Ezertan galarazi gabe Nafarroako Aldizkari Ofizialaren bidez ofizialki argitaratu beharrekoak diren izapideak, Nafarroako Parlamentuaren webaren (https://parlamentodenavarra.es/eu), “Gardentasuna/Langile-zerrendak eta -deialdiak/Langile-deialdi publikoak/2026ko ekitaldia” atalean argitaratuko da probetarako deiei eta kalifikazioei dagokienez epaimahaiak egindako jarduketei buruzko informazioa eta interesdunentzat baliagarria den beste edozein informazio orokor.

**11. oinarria**. Aldi baterako kontratazioriako izangaien zerrendak.

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen aldi baterako kontratazioari buruzko Erregelamenduak xedatzen duenari jarraikiz, aldi baterako kontratazioriako izangaien zerrenda hauek eginen dira, hautapen-prozesuan parte hartu bai baina bertan plazarik lortu ez duten pertsonekin:

1) Gainditu bai baina plazarik lortu ez duten pertsonen zerrenda, sartzeko hautapen-prozeduran lortutako puntuazio handienaren arabera ordenatua.

2) Oposizioa ez baina hautaprobetakoren bat gainditu duten izangaien zerrenda, honako lehentasun-ordena honen arabera:

a) ariketa gaindituen kopuru handiena.

b) ariketa gainditutan lorturiko guztizko puntuaziorik handiena.

Lehenengo eta bigarren probak gainditu dituzten pertsonei dagokienez, azken emaitzan berdinketarik badago, bigarren proban puntu gehien lortu duen izangaiaren alde ebatziko da hori. Eta horrela ere berdinketak bere horretan baldin badirau, berariaz deitutako jendaurreko ekitaldi batean eginiko zozketa bidez ebatziko da. Lehenengo proba besterik gainditu ez duten pertsonei dagokienez, berdinketarik badago, berariaz deitutako jendaurreko ekitaldi batean eginiko zozketa bidez ebatziko da.

**12. oinarria**. Aurkeztutako dokumentazioa.

12.1. Izangaiek zilegi izanen dute aurkeztutako dokumentazioa berreskuratzea, berariaz eskatuz gero, eta erreklamaziorik edo errekurtsorik jarri ez bada. Berreskuratze-eskaera hiru hilabeteko epean aurkezten ahalko da, aurretik beste hiru hilabete igaroak direnean izendapen-erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik.

12.2. Aurreko atalean ezarritako epea bukatzen bada dokumentazioa berreskuratzeko eskaerarik egin ez delarik, ulertuko da izangaiek uko egiten diotela agiriak berreskuratzeari, horretarako eskubidea galduko dute eta agiriak suntsitu eginen dira.

**13. oinarria**. Errekurtsoak.

13.1. Deialdi honen, bere oinarrien eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita.

13.2. Zilegi izanen da Parlamentuko Mahaiari gora jotzeko errekurtsoa aurkeztea Nafarroako Parlamentuko lehendakariak nahiz epaimahaiak deialdi hau aplikatuz erabakitzen dituzten gainerako egintzen aurka, hilabeteko epean, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita.

**I. ERANSKINA**
Parte hartzeko eskaera-eredua

**1) Datu pertsonalak**

Izen-abizenak:__________________________________________________

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia, Atzerritarraren Identifikazio-zenbakia edo beste identifikazio-agiri ofizial baten zenbakia: _______________________________ (honekin batera aurkezten da horren kopia)

Jaioteguna:__________________

Helbidea: ____________________

Udalerria: _______________________

Probintzia: ______________________ Posta-kodea: _________

Telefonoa(k): ______________________

Helbide elektronikoa: __________________________________________

**2) Azterketa egiteko eta espedientea formalizatzeko eskubideak**

[ ] Azterketa egiteko eta espedientea formalizatzeko eskubideak ordaindu ditut (honi atxikirik doa ordainagiriaren kopia).

[ ] Tasa ordaintzetik salbuetsirik nago, honako arrazoi honengatik:

[ ] % 33ko edo gehiagoko desgaitasun aitortua dudalako. (honekin batera aurkezten da legezko desgaitu-izaeraren frogagiriaren kopia).

[ ] Oposizioaldiko ariketak egiteko, honekin batera aurkezten dudan orrian adierazitako baliabide-egokitzapena eskatzen dut, adierazten diren arrazoiak direla-eta (aparteko orri batean desgaitasun-mota eta eskatutako egokitzapenak zehaztuko dira).

**3) Deialdian parte hartzeko eskatutako titulazioa**

